

Espekulazio usaina azpiegituretan

Espanian hirigintzan azaleratu diren eskandaluak medio, alarma piztu da Euskal Herrian ere. Gure herrialdean azpiegitura eta etxebizitza lan handiak egin dira eta datozen urteetan ere egingo dira. Espekulazioaren itzala hor dago.

DANIEL UDALAITZ

EGUN, AZPIEGITURA LAN HANDIAK

daude martxan Euskal Herrian eta lur eta hormigoi tonelada asko mugitzeaz gain, milioika milioi euro ere mugitzen dira horietan. Hamaika obra daude hastear eta honako hauek dira handienak: Euskal Y, Pasaia eta Pasaia kanpo Portua, Bilboko saihesbidea, San Mames futbol-zelai berria eta Bilboko pilotaleku berria, besteak beste. Makroobra horietan, milaka milioi euro daude jokoan, eta lan batzuk hasi dituzte dagoeneko.

Bilboko Metropolitiko Lurralde Planaren eta Gernikako eta Markinako eskualdeen hedatze planaren arabera, Bizkaiko itsasertzean 38.000 etxebizitza eraikitzea aurreikusita dago datozen zortzi urteetan, batik bat Getxon eta Bakion. Bizkaiko itsasertzeko udalek, horretarako, urbanismo planak aldatu egin beharko dituzte. Dirudienez, erakunde publikoek urbanizazioak egiteari utzi eta etxebizitza blokeen guneak eraiki nahi dituzte.

Ildo horretan, deigarria da lehengo eta oraingo eragiketen inguruko espekulazio beldurrak eta susmoak EAJ-ren gertuko eta berezko instantziak zabaldu dituztela. Eta deigarria da, hain zuzen EAJ delako Eusko Jaurlaritzan agintean dagoen alderdia, eta horretaz gain, alderdi horrek kontrolatzen dituelako Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundiak, eta orobat obrak egiten ari diren udal asko.

Irakurleak nahi duen eran epaitu dezan, erreportaje honetan hitzez hitz jasoko ditugu prentsan oro har eta nazionalisten sektore kritikoaren



Pasaia oraingo portuan ontzi galanta.

hurbileko web orri batean argitaratu diren beldur eta susmo horien zenbait adibide. Nori edo nortzuei buruz ari dira hedabide horien bidez jendaurrean zabaldu diren beldurrak eta susmoak? Etorikizuneko zenbait hirigintza lanen aurretik egindako eragiketa batzuetan, zenbait pertsonaren izenak ere eman dituzte jakitera. Beste batzuetan, berriz, iradoki egin dituzte. Epai ditzala irakurleak.

Fertiberia, lurbentia, Befesa

Izaro News web orrialdeak, EAJren alde kritikoaren hurbilekoak, hirigintza arloko ustezko zenbait espekula-

zio eta ustelkeria kasu azaleratu ditu, eta EAJren zenbait kide horietan nahasita daudela jakinarazi du. Ildo horretan, web orri horrek jakinarazi zuen “Fertiberiaren hirigintza-zartada Barakaldon” izeneko kasuan, José Olazarán “EAJren EBBren burukide ohiak” parte hartu zuela, Fertiberiaren lursailak erosi zituen eraikuntza-entresaren aholkulari gisa. “Olazarán EAJren zuzendaritzaatik kaleratu zuten negoziotan eta jardun politikoan ari zelako; ez dakigu jardun politikoan baino negoziotan aritzen zen gehiago, ezta politika negoziotarako baliatzen zuen ere”. Hala jakinarazi

San Mames berriaren interesak

Juan de Etxanok Izaro News web orrian hauxe esan zuen bere zutabea: "Honen guztiaren atzean ustelkeria orokortuta dago. San Mames berriaren proiektuak interes ekonomiko indartsuak eragin ditu eta jende askok eskuratu nahi du irabazien zati bat. Politikariek ere komisioak nahi dituzte eta enpresa arloko zorrak dituzte. Eta EAJren barneko krisiak behin eta berriz azpimarratu du nahaste ilun honek kalte larria egingo diola Athletic-i". Etxanok adierazpen horiek "bere enpresetan hainbat krisi gainditu dituen eta gainera lehen Gobernu frankistan erantzukizun handiko kargua izan zuen aspaldiko enpresaburu batek" esanak direla dio. Enpresaburu horrek berak hauxe aitortu zion Etxanori: "Nire bazkide bat enpresaburua da, eta hark aitortu dit urte honetan hiru alkateri eman diela dirua. Eta okerreza zera da, zinegotziek eurek eskatu ziotela zuzenean dirua".

Jose Luis Bilbao Bizkaiko ahaldun nagusiak eta Iñaki Azkuna Bilboko alkateak salatu dute San Mamesko proiektuan "aspaldiko enpresaburu" horrek aipaturiko interesak daudela. *Correo español* egunkariko kronikaren arabera, "Azkunak azpimarratu zuen Basurton eraikiko den San Mames berria oso garrantzitsua dela hirigintzan, EHUn campus teknologikoa eraiki aurretik futbol-zelai zaharra eraitsi eta berria eraiki behar delako". Aditzera eman zuen mugimenduak egin direla, baina ez zuen horien berri eman, nahiz eta eremu horretan ez den etxebizitarik eraikiko. "Litekeena da zenbaitek espekulazio eta ekonomia interesak izatea", esan zuen. Adierazpen horretan ez zuen izenik eman inor "ez salatze", baina Azkunak nahastetik kanpo utzi zuen Athletic-en egungo zuzendaritza. Hala ere, aitortu zuen kontuarengatik zenbait "eztabaida" ere izan duela.

ARGAZKI PRESS/ MONIKA DEL VALLE



San Mamesen belar berria jarri zuteneko.

"Badakit zenbait jende irrikaz zegoela kontuarekin irabaziak lortuko zituelako", adierazi zuen Bilbovision telebistan, baina ez zuen izenik "bota". "Inor aberasten bada, goizean goiz fusilatuko dugu", ohartarazi zuen Azkunak. Polemika horretan parte hartu zuen Antonio Basagoitik Bilboko udaleko PPren zinegotziak eta "EAJkoak ez diren hautagaiak eta konstruktoreak izutu nahi izatea" leporatu zien Bilbauri eta Azkunari.

Joan den otsailean, Jose Luis Bilbao Bizkaiko ahaldun nagusiak berak, San Mames Barria, San Mames futbol-zelai berria eraikiko duen elkarte, sinatu ostean, berriro eman zuen aditzera San Mames berria eraikitzeko proiektuan ekonomia eta espekulazio interesak daudela. Gaineratu zuen, ez dela "ez plusbaliorik ez zartadarik egongo". Eraikitzeko enpresak kontratatzerakoan ere garbi jokatuko dutela berretsi zuen. San Mames berria 180 milioi euro kostako da.

zuen Juan de Etxanok, web orrialde horretan idatzi ohi duen idazleak.

Enpresa horrek, lehen Sefanitro zenak, 1996. urtean erosi zituen lursailak, 1,5 milioi euroren truke. 1999an Barakaldoko udalak birkalifikatu egin zituen. Hirigintza-enpresen talde batek eskuratu du lursaila eta 240 milioi euroren truke 2.000 etxebizitza eraikiko ditu. Hirigintza arloko talde hori "Iurbentia Propiedad Inmobiliaria SA" da, eta hain zuzen lehen aipaturiko EAJren burukide ohia talde horretako aholkularietako bat da. Web orrialde horren arabera, "aipaturiko enpresak 680 milioi euro

fakturatuko ditu proiektu horrekin eta denbora gutxiren buruan beste 42.000 metro koadro lur eskuratzeko asmoa du, Fertiberiaren lantegiko lurretatik gertu. Egun Befesaren planta batek okupatzen du aipaturiko lursail hori, baina enpresa horren jarduna 2007an amaituko da".

Alonsoren hirigintza kudeaketa Gasteizen

PP gutxiengoan egon da agintean Gasteizko udalbatzan eta joan den urte amaieran hirigintza arloko ustezko bi eskandalutan nahasi zen, biak ere familia bakarrek etxebizitzan

promozio kontuak ziren... gertaturikoa ikertzen ari dira orain. Ibaiondo auzoan, Opacua eraikuntza-enpresak 54.000 euro garestitu zituen udal lurretan eraikitako 24 txalet bioklimatiko. Eta Ali herrian, hirigintza zinegotzia zen Jorge Ibarrondo popularrak baimena eman zion Salgado Iglesias markari zazpi txalet eraikitzeke, aurkako hainbat txosten tekniko jaso arren. Jose Mardones, Lasarte, Villa Vergara, Cruz Roja eta Cervantes hegoaldea ere susmagarriak dira zenbait txaletetan ustez Aliko Udalak lagunduta egindako hirigintza gorabeherengatik. ■